




Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

BILBOKO BIDE PUBLIKOAN BISITA GIDATUAK

EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA



Konpromiso hauek hartuko dira:

OREKA MANTENTZEA TOKIKO EGUNEROKO BIZITZAREN ETA BISITARIEN ARTEAN

- 1. Talde turistikoak 30 pertsonara mugatzea** eta haien tamaina bisitatzen diren espazioen arabera egokitzea. Pertsonen pilaketak saihestuko dira. Halaber, taldeen tamaina murriztuz gero, zerbitzu gidatuak kalitate hobea izango du.
- 2. Soinua anplifikatzeko gailurik ez erabiltzea**, eta azalpenak ez ematea soinu-intentsitate handiarekin, bide publikoko kutsadura akustikoa murrizteko. **Ahal den neurrian irratigida-sistemak erabiltzeko konpromisoa.**

BALIABIDE TURISTIKOAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA ZAINTEZA

- 3. Taldeei azalpenak emateko geldialdiak hiriko eguneroko bizitzan eragozpen eta disrupzio gutxi eragiten duten espazioetan egitea.**
- 4. Ondare arkitektonikoa eta espazio publikoa zaintzea** eta eskulturetan edo monumentuetan bermatzea, bide publikoa zikintzea eta halako portaerak saihestea.

MUGIKORTASUNAREN EFIZIENTZIA, SEGURTASUNA ETA IRISGARRITASUNA BERMATZEA

- 5. Bisita gidatuen hasiera-puntuak, geldialdiak eta amaiera-lekuak behar bezala aukeratzea.** Horrela, eraikinetarako eta merkataritza-lokaletarako sarrerak blokeatzea saihesten da, eta ez zaie igarobidea oztopatzen beste pertsona eta talde batzuei. **Arreta berezia eskainiko zaie mugikortasun urriko pertsonari.** **Oinezko ibilbideak bisitatuko den zonako ordutegiaren arabera planifikatzea** lagungarria izan daiteke jende gehien izaten duten kaleetan pilaketak murrizteko.
- 6. Zirkulazio-arauak eta, bereziki, mugikortasun turistikorako arau espezifikoak ezagutzea: arreta jarri beharko da bidaiariak jaso eta jaisten diren puntuetan**, eta turismo-autobusak behar bezala aparkatzen direla zaindu beharko da. Gidek talde osoa zehaztutako elkargunean dagoenean abisatuko diote autobusari etortzeko.





7. Bilboko Udalak autobusez iristen diren **bisitariak jasotzeko eta jaisteko gunek** sortuko ditu, turismo-fluxuen kontzentrazioak saiheste aldera. Bidaiariak horretarako baimendutako leku berezietan baino ezin izango dira jaso eta jaitsi.

8. **Garraio publiko kolektiboak erabiltzen dituzten bisitak irratigida-sistemekin egin beharko dira, eragozpenak minimizatzeko.** Giden kolektiboak konpromisoa hartuko du azalpenak gainerako erabiltzaileei eragozten ez dioten bolumenean emateko. Era berean, kontuan izan eta errespetatu egin beharko dira garraio publikoetan erabilera desberdinak dituzten espazioak (adib.: taldea ezin izango da jarri mugikortasun urriko pertsonentzat, bizikletentzat eta abarrentzat gordetako eremuetan).

9. Gomendatutako gehieneko talde-tamaina bermatzeko eta zonen balizko saturazioa saihesteko, giden kolektiboak konpromisoa hartuko du **bide publikoan turistarik ez erakartzeko.** Bisita gidatueta parte hartzen dutenei argi eta garbi emango zaie bisita gidatuaren kontzeptuaren eta ordaindu behar den ordainsariaren berri, inolako nahasmenik, engainurik eta anbiguotasunik gabe.

GIDA PROFESIOALEN KOLEKTIBOAREN PROFESIONALITASUNA BALIOAN JARTZEA

10. **Bide publikoari buruzko ordenantzak ezagutzea eta betetzea:** Bilboko Udalak behar den lana egingo du gidek araudien eta ordenantzen eguneratze berriei, seinaleztapenari edo bide-aldaketei buruzko informazioa izan dezaten.

11. **Giden kolektiboak turismo-baliabideei eta bisitatzeko den espazioari buruzko ezagutza objektibo eta eguneratu zabalak izango ditu, aurreiritzirik transmititu gabe.** Azalpenak emango dituzten hizkuntza maila ona izango dute. Bilboren izaera definitzen duten kultura, identitate eta ohiturei buruzko azalpenak emango dituzte.

12. **Giden kolektiboak udalaren eta bisita gidatueta profesionalen artean ezar daitezkeen bisiten komunikazio- eta erregistro--sistemen erabilera sustatuko du:** erregistroa, abisuak, alertak sortzea, informazio interesgarria, etab.



¡Eskerrik asko Bilbao aparteko helmuga bihurtzeagatik!

Informazio gehiago:

informacion@bilbaoturismo.bilbao.eus

www.bilbaoturismo.net

